

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

LH 4. maila

2025-2026 IKASTURTEA

ZUZENTZEKO KOADERNOA

EUSKARAZKO

HIZKUNTZA GAITASUNA

INDIZEA

I. LABURPENA	4
II. ZUZENDU BEHARREKO GALDERAK	6
A. ERANSKINA.....	9
B. ERANSKINA	12
C. ERANSKINA.....	14
III. AUDIOAREN TRANSKRIPZIOA	6
IV. IRAKURKETA PROZESUAK.....	23
V. KOADERNOA SOLUZIOEKIN.....	25

Honako hau da atal bakoitzaren edukia:

- I. LABURPENA

Probaren item bakoitza **zein motatakoa** den, zein duen **erantzun zuzena**, lor daitekeen **gehieneko puntuaketa**, dagozkion **oinarrizko jakintza, konpetentzia espezifikoa** eta **ebaluatutako prozesua** taula batean bildu dira.

- II. ZUZENDU BEHARREKO GALDERAK

Zuzendu beharreko item bakoitzaren **erantzuna** eta **zuzentzeko eta kalifikatzeko irizpideak**.

Eranskinetan zuzenketa egiteko jarraibideak (A eta B) eta hainbat adibide eta beren zuzenketak (C) atxiki dira.

- III. AUDIOAREN TRANSKRIPZIOA

Lehen zatiaren audioan entzundakoa.

- IV. IRAKURKETA PROZESUAK

Irakurketa prozesuak, itemaren erantzunaren mota eta testu mota.

- V. KOADERNOA SOLUZIOEKIN

Ikasleari emandako liburuxka bera, item bakoitzaren erantzuna nabarmendu delarik.

I. LABURPENA

Euskarazko hizkuntza gaitasuna frogak 29 item ditu. Horietako hamaika zuzendu eta kalifikatu behar dira. Honako hauek dira:

2, 4, 10, 13, 15, 19, 24, eta 29

Item bakoitza zein motatakoa den, zein duen erantzun zuzena, lor daitekeen gehieneko puntuaketa, dagokion oinarritzko jakintza, konpetentzia espezifikoa eta ebaluatutako prozesua ageri dira taula honetan:

	Itema	Itema mota	Erantzun zuzena	Gehieneko puntuazioa	Konpetentzia espezifikoa	Oinarritzko jakintza	Ebaluatutako prozesua
Entzumena Goazen: iritsi gara. - Narratiboa	1	Itxia	B	1	KE 2	B1.1/ B3.2	Aurkitzea
	2	Erdi-eraikia	Ikus II. atala	1	KE 2	B3.2	Aurkitzea
	3	Itxia	B	1	KE 2	B3.2	Aurkitzea
	4	Erdi-eraikia	Ikus II. atala	1	KE 2	B3.2	Aurkitzea
	5	Itxia	B	1	KE 2	B3.2	Interpretatzea
	6	Itxia	C	1	KE 2	D.4/ B3.2	Interpretatzea
	7	Itxia	C	1	KE 2	B3.2	Interpretatzea
	8	Itxia	B	1	KE 2	B3.2	Hausnartzea
	9	Itxia	B	1	KE 2	B3.2	Interpretatzea
	10	Erdi-eraikia	Ikus II. atala	1	KE 2	B3.2	Aurkitzea
Irakurmena 1. testua Zirkua: Karpa barruko magia. - Jarraitua - Azalpenezko eta narraziozko testua	11	Itxia	B	1	KE 4	B1.1/ B3.4	Integratzea: ulermen globala
	12	Itxia	B	1	KE 4	B3.4	Interpretatzea
	13	Erdi-eraikia	Ikus II. atala	1	KE 4	B3.4	Aurkitzea
	14	Itxia	B	1	KE 4	B3.4	Interpretatzea
	15	Erdi-eraikia	Ikus II. atala	1	KE 4	B3.4	Interpretatzea
	16	Itxia	B	1	KE 4	B3.4	Interpretatzea
	17	Itxia	B	1	KE 4	B3.4	Aurkitzea
	18	Itxia	C	1	KE 4	B3.4	Hausnartzea
	19	Erdi-eraikia	Ikus II. atala	1	KE 4	B3.4	Aurkitzea
Irakurmena 2. testua Ane eta ohe hegalaria - Etena - Azalpena	20	Itxia	B	1	KE 4	B2.1/ B3.4	Integratzea: ulermen globala / Hausnartzea
	21	Itxia	A	1	KE 4	B1.1/ B3.4	Integratzea: ulermen globala
	22	Erdi-eraikia	Ikus II. atala	1	KE 4	B3.4	Interpretatzea
	23	Itxia	D	1	KE 4	B3.4	Interpretatzea
	24	Erdi-eraikia	Ikus II. atala	1	KE 4	B3.4	Aurkitzea
	25	Itxia	C	1	KE 4	B3.4	Aurkitzea
	26	Itxia	D	1	KE 4	B3.4	Aurkitzea
	27	Itxia	B	1	KE 4	B1.1/ B3.4	Interpretatzea
	28	Itxia	C	1	KE 4	B3.4	Interpretatzea

Idazmena	29	Irekia	Ikus II. atala	10	KE 4 / KE 5	B1.1/ B2.2/ B2.3 / B3.5/ D.4 / D.5 / D.6/	-
Puntuazioa guztira:				38			

II. ZUZENDU BEHARREKO GALDERAK

Atal honetan zuzendu beharreko bederatzi itemen **ebazpena** (hala dagokionean) zein **zuzentzeko eta kalifikatzeko irizpideak** agertzen dira. Zuzendu eta kalifikatu beharreko galderak hauek dira:

2, 4, 10, 13, 15, 19, 24, eta 29

2. Esan honako esaldi hauek EGIA edo GEZURRA diren:

	E	G
A. Istorioaren protagonistak kuleroak motxilan sartu ditu.	X	
B. Istorioaren protagonista jertsea motxilan sartu du.		X
C. Istorioaren protagonistak kamisetak motxilan sartu ditu.	X	
D. Istorioaren protagonistak soineko marraduna motxilan sartu du.		X

Zuzentzeko eta kalifikatzeko irizpideak
Kalifikazioa
0.25 puntu erantzun zuzen bakoitzeko (Gehienez, 1 puntu).

4. Nola deitzen da istorioaren protagonista?

Zuzenketarako irizpideak	
Kalifikazioa	Erantzuna/k
1	<i>Zuri.</i>
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.

10. Aipatu protagonistak dendan erosiko dituen beste bi gauza.

Zuzenketarako irizpideak	
Kalifikazioa	Erantzuna/k
1	<i>Konpresak, tanpoiak edo txutxeak.</i>
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.

13. Zein forma du zirkuaren eszenatokiak?

Zuzenketarako irizpideak	
Kalifikazioa	Erantzuna/k
1	<i>Borobila.</i>
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.

15. Esan honako enuntziatu hauek EGIA edo GEZURRA diren:

	E	G
A. Gasteizen, animaliak zirkuetan ager daitezke.		X
B. Nafarroa osoan animaliak zirkuetan debekatuta daude.		X
C. Donostian eta Bilbon animaliak zirkuetan debekatuta daude.	X	
D. Baionan, animaliak zirkuetan ager daitezke.	X	

Zuzentzeko eta kalifikatzeko irizpideak
Kalifikazioa
0.25 puntu erantzun zuzen bakoitzeko (Gehienez, 1 puntu).

19. Zein egunetan eta non argitaratu zen testu hau?

Zuzenketarako irizpideak	
Kalifikazioa	Erantzuna/k
1	<i>Berria egunkarian / Berria. 2020ko uztailaren 18an. / 20-10-18/... edo ...antzeko erantzunak.</i>
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.

22. Zein da antzezlanaren izena?

Zuzenketarako irizpideak	
Kalifikazioa	Erantzuna/k
1	<i>Ane eta ohe hegalaria.</i>
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.

24. Zerk lagunduko dio Aneri toki askotara joaten?

Zuzenketarako irizpideak	
Kalifikazioa	Erantzuna/k
1	<i>Ohe hegalaria.</i>
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.

29. Idazmena

ATALAK		PUNTUAZIOA 0 / 0,25 / 0,5 / 1
	Plangintza	
	Txukuntasuna	
	Ortografia	
	Gramatika-zuzentasuna	
	Hiztegi-aberastasuna	
	Egokitzapena	
	Koherentzia	
Kohesioa	Lokailuak	
	Kohesioa mekanismoak	
	Puntuazioa eta paragrafoak	
29. itema – Osotara:		/10

NOLA ZUZENDU IDATZIZKO EKOIZPENA

- Maila bakoitzari dagokion puntuazioa: 0 1. mailara, 0,25 2. mailara, 0,5 3. mailara eta puntu 1 3+ mailara.
- Ondorioz, lor daitekeen gehieneko nota 10 puntukoa da.

Zeregin horri lehen aldiz aurre egin behar dioten irakasleentzat, gida bat baliagarria izan daitekeela uste dugu, zuzentzeko.

A eranskinean atal bakoitzaren deskribapena dago. Aldi berean, zuzenketa-prozedura homogeneo batera iristeko laguntza-material gisa balio izatea nahi dugu. Lehen Hezkuntzako 4. maila aipatzen dugu, baina edozein etapatan erabil daiteke. **B eranskina** bat dator ohiko **errubrikaren** formatuarekin eta aipatutako aldaketekin.

A. ERANSKINA

ZIRRIBORROA

Aurten ere uste dugu puntu bat (atal honetako gehieneko puntuazioa) zuzenean eman daitekeela zirriborroaren erabilera hutsagatik. Izan ere, haren erabilera sustatu nahi dugu, zalantzarik gabe, idazketa prozesua hobetzen baitu. Hala ere, ikastetxeek beren kabuz erabaki dezakete 0 puntu ematea, baldin eta uste badute ikasturtean zehar plangintza landu dutela eta inkoherentziak edo akatsak daudela erabileran. Akats horiek mota honetakoak izan ohi dira nagusiki: plangintza erabiltzen da, baina gero paragrafokako antolaketa edo informazioaren zati bat ez da islatzen behin betiko testuan. Emaizako testua, beraz, zirriborrokoa baino “okerragoa” da, eta hori inkoherentea da, gure helburua baita ikasleei idazten, berriz irakurtzen eta berrikusten irakastea, idazmena hobetze aldera.

AURKEZPENA:

oro har txukuntasun itxura izatea baldintza garrantzitsua da edozein idazki eta edozein lan akademiko aurkezteko. Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleak komunikazio gaitasuna sendotzeko prozesuan daude bete-betean, eta, beraz, garrantzitsua da argitasuna eta garbitasuna azpimarratzea. Arreta berezia jarriko dugu elementu hauetan: letra irakurgarria izatea; hitzen, lerroen eta paragrafoen arteko tartea; eta txantiloiak agertzen dituen marjinak errespetatzea, batez ere eskuinekoak. Ez da larria urratuak egotea, baldin eta dena delakoa marra batekin ezabatzen bada eta idazkia “zikintzen ez bada”.

ORTOGRAFIA:

Maila honetan, hau espero dugu ikasleengandik: hitzak* ongi bereiztea, maiuskulak zuzen erabiltzea izen propioetan eta esaldiaren eta testuaren hasieran; eta oinarriko hiztegian ortografia akatsik ez egitea (bereziki, ikastetxeak zikloaren berezko hiztegia zehaztu badu). Ortografia akatsei dagokienez, *tz/ts/tx/z/s/* grafiei erreparatuko diegu, eta *v* letra ez erabiltzeari.

* LHko 4. mailako ikasle batzuei dagokienez, hitzak bereiztea ez da argitasun arazoa izanen, ortografia akatsa baizik. Bi gaiak atal berean ebaluatzen direnez, irakasle bakoitzak egokitzen jo bezala kalifikatzen ahalko du.

ZUZENTASUN GRAMATIKALA:

Adi egon behar dugu konkordantzia akatsekin, aditz jokoetako akatsekin eta esaldi osatugabeak eraikitzearekin. Preposizioen eta izenordainen erabilerari ere erreparatu behar diogu.

ABERASTASUN LEXIKOA (eta erregistroa):

Kontuan hartu behar dugu hiztegi aberatsik dagoen eta errepikapen edo edozertarako hitz gehiegi erabiltzen ez diren (*gauza, zera, pertsona, egin, pasatu...*). 3. eta 3+. mailetan, ikasleek mezua aberastuko duten adjektiboak eta adberbioak erabiltzeko gai izan behar dute. LHko 4. mailan ohikoa izan daiteke nolabaiteko informaltasuna adierazten duten ezaugarriak egotea, baina ikasleek ahozko hizkuntza eta idatzizkoa bereizten hasi beharko lukete.

EGOKITASUNA:

Ongi idatzitako testuak definitzen dituen propietateetako beste bat da; igorleak komunikazio egoerara egokitzeko duen gaitasunari egiten dio erreferentzia (irakurle mota, asmoa, testuingurua...). Horrek pixka bat gainditzen du LHko 4. maila, eta, beraz, arreta jarriko dugu, ikasleek agindutako zeregina betetzen dutela egiaztatzeko. Hasteko, ikasleak gai izan beharko luke baloratzeko ea eman duen informazioa nahikoa den eskatu zaion mezua osatzeko. Horiek horrela, informazio horren luzera eta mota aztertuko ditugu.

KOHERENTZIA:

Testuak zentzu globala izan behar du, eta progresio logikoa ere bai ideiak azaltzean. Testua koherentea izanen da, informazioa egokia bada, irakurle ertain batentzat ulergarria bada eta zentzua transmititzen badu. Horretarako, ezin da barne kontraesanik, justifikaziorik gabeko jauzirik edo garrantzirik gabeko informaziorik egon.

KOHESIOA

Ongi idatzitako testu batek erreferentzia mantendu behar du, eta ez du haria galdu behar; horixe da, hain zuzen ere, ikasleen arazo tipikoa. Erreferentzia hori eta testuaren zatien arteko erlazioak bermatzeko, mekanismo gramatikal-sintaktiko eta lexiko desberdinak erabiltzen ditugu. Beraz, honako hauek aztertuko ditugu hemen:

- **Lokailuen erabilera.** Maila honetan lokailu sinpleak eta ez oso anitzak espero ditugu, baina ongi erabiliak (*baina, gainera, horregatik* edo antzekoak); *eta* juntagailua gehiegi erabiltzen ez dela zainduko dugu.
- **Nola mantentzen den erreferentea eta nola saihesten diren gehiegizko errepikapenak:** maila honetan, batez ere sinonimoekin eta izenordainekin. **Denbora korrelazioa** aditz formetan (egiaztatu ez duela etengabe aldatzen aditz denbora).
- **Puntuazioa:** etapa honetako ikasleek gai izan behar dute perpausak puntuka behar bezala bereizteko, testua logika bati jarraitzen dioten paragrafoetan egituratzeko, eta komaren bat erabiltzeko (gehiago interesatzen zaigu asmoa, eta ez dadila izan komen ausazko erabilera).

Zuzenketa-irizpideak argitzeko, Ebaluazio Atalera jo daiteke. "Sanz, A. (2009). *Testu idatziak zuzentzeko orientabideak. Ebaluazio diagnostikoa. Lehen Hezkuntza*. Hezkuntza Ikuskaritzako koadernoak 8. zenbakia. Nafarroako Gobernua." hartu da erreferentzia gisa. Bertan azalpen osagarriak aurki daitezke, irakaskuntzan oro har jarduteko ere baliagarriak, baita zuzenketen adibideak ere. Esteka honetan deskarga daiteke:

https://www.educacion.navarra.es/eu/web/publicaciones/ultimas-publicaciones/-/asset_publisher/JONi5m8mCym2/content/orientaciones-para-la-correccion-de-textos-escritos-evaluacion-diagnostica-educacion-primaria

B. ERANSKINA

	1. maila 0	2. maila 0.25	3. maila 0.5	3+. maila 1
Plangintza	Ez du zirriborrorik egin.			Zirriborroa egin du.
Aurkezpena	Zirrimarra asko dago, ez dago marjinarik, letra irakurtezina da.	Letra ez da ona, zirrimarra dezente dago.	Oro har, testua txukun idatzita dago: irakurterraza; marjinak ongi zehazturik daude.	Txukun idatzita dago: ez dago zirrimarrarik, letra argia eta irakurterraza. Marjinak ongi zehazturik daude.
Ortografia	<p style="text-align: center;">Oso eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako.</p> <p>Akats egin asko ditu: (ez ditu hitzak banatzen; letra larriak ez ditu erabiltzen edo gaizki erabiltzen dit; h, ts, tx eta tz gaizki erabiltzen ditu).</p>	<p style="text-align: center;">LHko 4.eko maila ez du oraindik bereganatu, baina bidean da.</p> <p>5-10 akats</p> <p>Letra larriak , h, ts, tx eta tz gaizki erabiltzen ditu batzuetan eta hitzak ere ez ditu beti ongi banatzen.</p>	<p style="text-align: center;">Lehen Hezkuntzako 4. mailarako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako:</p> <p>Testu laburrak direnean (10-15 lerro), bost akats, gehienez; (tz/ts/tx/z/s/x) gaizki idatziz gero, horietako 5 akats bakartzat hartuko dira; zortzi akats, gehienez, testuak luzeagoak direnean.</p> <p>Akatsen bat gorabehera, letra larriak zuzen erabili ditu eta hitzak ondo banatu ditu.</p>	<p style="text-align: center;">Lehen Hezkuntzako 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du.</p> <p>Oso akats gutxi egin ditu (hitzak ongi banatzen ditu; oinarrizko hiztegia ondo idatzen du; letra larrien erabilera arauak aplikatzen ditu; <i>h, ts, tx, tz</i> ongi erabiltzen ditu).</p>
Gramatika-zuzentasuna	<p>Nabarmen eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako.</p> <p>Komunikazioa eragozten duen gramatika akats dezente egin ditu. Adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Komuntadura akatsak (ergatiboa, pluralgilea, deklinabidea...). - Aditz-formak ez dira egokiak - Esaldi batzuk bukatu gabe daude. - Esaldi batzuk luzeegiak dira. - Galdegaia gaizki erabili du. <p><u>Perpausak</u>: esaldi osatugabeak.</p>	<p>Gaitasuna eskuratzeko bidean, baina oinarrizko egitura gramatikaletan hutsune asko dago.</p> <p>Mezua ulertzen da, baina behin eta berriz errepikatzen diren akatsak daude.</p> <p>Adibidez: aditza, deklinabidea, komuntadura, galdegaia...</p> <p><u>Perpausak</u>: esaldiak bukatu gabe; ez du mendeko perpaus bakar bat ere erabili.</p>	<p>Lehen Hezkuntzako 4. mailarako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aditzak: oro har, zuzen erabili ditu (denbora eta aspektua). - Komuntadura akats batzuk bakarrik egin ditu (ergatiboa, pluralgilea...). - Deklinabidea: kasu markak ongi erabili ditu, oro har. - Galdegaia ondo erabili du. <p><u>Perpausak</u>: perpausak ideia osoak adierazten dituzte; ez du esaldi luzeagirik erabili.</p>	<p>Lehen Hezkuntzako 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du.</p> <p>Ez du gramatika akatsik egin.</p> <p><u>Perpausak</u>: sintaxia menderatzen duela erakusten duten zenbait perpaus mota erabili ditu, perpausak ez dira oso luzeak eta egiturak zuzenak dira. Mendeko perpausak ere erabili ditu.</p>

<p>Hiztegia-aberastasuna</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Makulu-hitz asko erabili ditu: "gauza, egin, pasa, zera..." - Erdarakadak erabili ditu. - Arrunkeiak baliatu ditu <p>Ahokotasunaren berezko hizkuntza erabili du, hizkera idatzian berezkoa den kodetik urrunduz.</p>	<p>Batzuetan erabili duen erregistroa oso lagunartekoa da eta hiztegia oso oinarritzkoa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Hiztegi anitza erabili du. - Ez du erdarakadarik erabili. <p>Erregistro egokia erabili du.</p>	<p>Lexiko aberatsa baliatu du, mezua aberasten eta zehazten duten zenbait adberbio eta adjektibo erabili ditu.</p> <p>Erregistro egokia erabili du.</p>
<p>Egokitasuna</p>	<p>Oso eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako.</p> <p>Ez du zeregina bete (luzera, xedea, ikuspegia).</p>	<p>Oraindik ez da nahikoa LHko 4.mailarako. Ez da erabat koherentea, baina agindutako zeregina betetzen saiatu da.</p> <p>Ataza ulertu du, baina laburregia da. Eskatutako elementu asko falta dira...</p>	<p>Lehen Hezkuntzako 4.erako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako:</p> <p>Agindutako zeregina bete du, nahiz eta punturen batean huts egin.</p>	<p>LHko 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du.</p> <p>Agindutako zeregina bete du, sortzaile ere izan daiteke.</p>
<p>Koherentzia</p>	<p>Egitura ez da argia, testuak ez du zentzu globalik, kontraesanak eta justifikatu gabeko hutsuneak daude eta beharrezkoa den informazioa falta da.</p>	<p>Ez da inkoherentea, baina egitura ez da behar bezain argia. Batzuetan justifikatu gabeko hutsuneak daude edo gai beraren gainean aritzen da, kontraesanak daude</p>	<p>Ez da perpaus batzuetatik besterako jauzirik antzeman, ezta justifikatu gabeko hutsunerik ere. Informazioa modu progresiboan eta orekatuan azaltzen da. Akatsen bat gorabehera, informazioa ondo ulertzen da.</p>	<p>Barne egitura argia da, gaiaren progresioa ere ona da, errepikapen eta jauzirik gabe. Hartzaileari mezua argi geratu zaio.</p>
<p>Kohesioa</p>	<p>Ez dago erreferenteari eusteko eta ideiak konektatzeko mekanismorik. Hona hemen arazo horietako asko:</p>	<p>Erreferenteari eusteko eta lotzeko mekanismo gutxi daude.</p>	<p>Orokorrean testua kohesionatua dago, baina oraindik akatsen bat antzeman daiteke.</p>	<p>LHko 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du.</p>
	<p><u>Lotura</u>: ez du konektorerik erabili.</p>	<p><u>Lotura</u>: beharrezkoak izanik ere, ez du konektorerik erabili edo gaizki erabili ditu.</p>	<p><u>Lotura</u>: paragrafoak zein perpausak ongi loturik daude (lokailuak, menderagailuak, puntuazioa...).</p>	<p><u>Lotura</u>: antolatzaile eta lokailu asko erabili ditu edo modu zehatzean baliatu ditu.</p>
	<p><u>Erreferenteari</u>: ez dago argi zertaz ari den. Errepikapen gehiegi.</p>	<p><u>Erreferenteari</u>: batzuetan galdu egin du. Behar ez diren errepikapenak daude.</p>	<p><u>Erreferenteari eutsi dio</u>: ez dago alferrikako errepikapenik.</p>	<p><u>Erreferenteari eutsi dio</u>: argi dago zertaz diharduen. Sinonimoak, izenordainak eta substantibazioa erabili ditu.</p>
<p><u>Puntuazioa</u>: gaizki erabili ditu puntuak.</p> <p>Ez dago paragraforik.</p>	<p><u>Puntuazioa</u>: puntuak erabili baditu ere, ez du komarik erabili edo gaizki erabili ditu.</p> <p>Ez dago paragraforik edo gaizki banatuta daude.</p>	<p><u>Puntuazioa</u>: puntuak ondo erabili ditu eta koma batzuk ere baliatu ditu. Harridura ikurrak, galdera ikurrak eta gidoiak, oro har, zuzen erabili ditu.</p> <p>Gutxienez hiru paragrafotan banatu du testua</p>	<p><u>Puntuazioa</u>: puntuak eta komak oso ondo erabili ditu. Harridura, galdera ikurrak eta gidoiak zuzen erabili ditu.</p> <p>Paragrafoak ondo bereizi ditu.</p>	

C. ERANSKINA

Jarraian, aurrez azaldutako irizpideen arabera zuzendutako bost adibide atxiki dira. Idazlan bakoitzari eman zaizkion puntuazioez gain, zuzenketen deskripzio zehatzak ageri dira.

1. ADIBIDEA:

TESTUA IDATZI:

Ongi erabili letra larriak eta zaindu ortografia.

Erabili puntuak, komak eta paragrafoak.

ACUOPOLIS

Uste onetan Acupolis era joango gara.

Acupolis Salondago onduan tutubises gongo gara.
Salondago

Ikaro asko egiten!!!

Gure tutorea Asierda onduan berarekin eta bost

Klasako tutorearekin joango gara kusu oneta, Manca

Acuopalis ahupar bat dago eta txiris eta ur asko dagoen.

Intuko gara eta fakilluhartuko ditugu eta galastera

joango gar eun osatuko eta tutuak gara

Et esungo dago AGUR!!!

FIN

19

1. adibidea		Puntuazioa
Plangintza		1
Txukuntasuna		0,5
Ortografia		0
Gramatika zuzentasuna		0
Hiztegi aberastasuna		0
Egokitasuna		0,5
Koherentzia		0,5
Kohesioa	Lokailuak	0
	Kohesioa mekanismoak	0
	Puntuazioa eta paragrafoak	0
29. itema – Osotara:		2,5 / 10

2. ADIBIDEA

HASI IDEIAK ANTOLATZEN (zirriborroa egitea derrigorrezkoa da.)

1. paragrafoa	- Parisera - Hegarkinez
2. paragrafoa	- Ifel dorrea - Hotel bat jarri
3. paragrafoa	- paula - korrosamak

TESTUA IDATZI:

Ongi erabili letra larriak eta zaindu ortografia.

Erabili puntuak, komak eta paragrafoak.

Niri ikazteko bukazarako joan ga zaren lekura
antolatzen tokatu zaik. Oarduan parisera joango gara.
Hegarkinez Wanduz dugn bidia

Ni parisera joatea erabaki dut. Ifel dorea dugolako
baina oraindik ez ditut ezer kontatuko. Hegarkin
ateratzen garenean hotel bat jarri joango gara,
paris batelara. Siraekin, 10 egunera geratzen gara
bufet librearekin, bakitea bere logela du
opariekin. Ateratzen garenean Ifel dorea ikuriko
dugn izugarria da!!

Joango zaren tutaera paula da. Joan garun
arrazoiaren gatik. Korrosamak joatea da.

2. adibidea		Puntuazioa
	Plangintza	1
	Txukuntasuna	1
	Ortografia	0
	Gramatika zuzentasuna	0
	Hiztegi aberastasuna	0
	Egokitasuna	0,5
	Koherentzia	0
Kohesioa	Lokailuak	0
	Kohesioa mekanismoak	0
	Puntuazioa eta paragrafoak	1
29. itema – Osotara		3,5 / 10

3. ADIBIDEA

HASI IDEIAK ANTOLATZEN (zirriborroa egitea derrigorrezkoa da.)

1. paragrafoa	mendira, autobusez, + ...
2. paragrafoa	tutoreekin, iturri bat,
3. paragrafoa	bazkaldu, lo egin acampada denden

TESTUA IDATZI:

Ongi erabili letra larriak eta zaindu ortografia.

Erabili puntuak, komak eta paragrafoak.

Ikasturte amaieran, mendira joango gara. Mendira,
Autobusez joango gara, eta primeran pasatuko dugula
Abesten eta ongi pasatzen joango gara autobusean.

2 gelako tutoreekin joango gara, baita praktiketan
dagoenarekin. Han, mendian, iturri zoragarri bat
ikusiko dugu, baita erreka bat ere.

Han, mendian, bazkaldu, paseatu, eta errekan banatu
bhalako dugu gainera acampada dendetan lo egingo
dugu. Super ongi pasatuko dugu mendian, aguuur!!!

3. adibidea		Puntuazioa
	Plangintza	0,5
	Txukuntasuna	1
	Ortografia	1
	Gramatika zuzentasuna	1
	Hiztegi aberastasuna	0,25
	Egokitasuna	0,25
	Koherentzia	1
Kohesioa	Lokailuak	0
	Kohesioa mekanismoak	0,5
	Puntuazioa eta paragrafoak	1
29. itema – Osotara		5,5 / 10

4. ADIBIDEA

HASI IDEIAK ANTOLATZEN (zirriborroa egitea derrigorrezkoa da.)

1. paragrafoa	-Akuapark batera -Autobusez -9:00 - 17:00 arte
2. paragrafoa	-María, Maritxu eta Agier -Ura, txirristak eta jolasak. -Bainujantzia eta toaia.
3. paragrafoa	-Jolastu eta txirristetatik bota -Ekainak 10ean

Ikasturte bukaerako ateraldian Akuapark batera joango gara. Akuapark hari Aquopolis deitzen da. Autobusez joango gara. 9:00 etan ikastolatik aterako gara eta 17:00 etan bueltatuko gara.

Gurekin María, Maritxu eta Agier etorriko dira. Han gauza pilo bat daude. Pesian artean ur txirristak. Nire gehien gustatzen zaidana ur jolasak dira. Bainujantzia eraman behar da toaia, txanketax eta nahi duenak betaurrekoak.

Iristen garenean belardian jarri behariko gara. Jarraian bainujantzia jarriko dugu. Ondoren ur txirristetara eta ur jolasetara joan ahalko gara. Gero bazkalduko dugu. Bazkaldu ostean herrira jolastu ahalko dugu. Ekainak 10ean joango gara.

4. adibidea		Puntuazioa
	Plangintza	1
	Txukuntasuna	1
	Ortografia	1
	Gramatika zuzentasuna	0,5
	Hiztegi aberastasuna	0,25
	Egokitasuna	0,5
	Koherentzia	1
Kohesioa	Lokailuak	0,25
	Kohesioa mekanismoak	1
	Puntuazioa eta paragrafoak	0,5
29. itema – Oso tara		7 / 10

III. AUDIOAREN TRANSKRIPZIOA

<< ALAI argialetxeak aurkeztuta: Jasone Osororen *Iritsi gara*.

Kontalaria, Lorea Intxausti.

Lehen zatia.

- Ea dena sartu dudan motxilan. Soineko loreduna, bakeroak, txupa, kamisetak, bainujantzia, kuleroak eta sujetadoreak, txankletak, nezeserra. Ostras! haginak garbitzekoa ahaztu zait. *Kaka zaharra*, beti berdin, jope! Eta orain zer egingo dut? Ama dagoeneko Basakabin dago, eta Eli eta Gari, honezkero, kotxean nire bila etortzeko.

Ze ordu da? Agian astia ematen dit erostera joateko. Whatsappa bidaliko diet hauei, autobus geltokian ez banago zain egoteko. "Eo! Hortz eskuila ahaztu zait eta banoa erostera. Geltoki pareko supermerkatua noa".

Zurik whatsappa bidali die laguneri, eta zuzenean motxila bizkarrean hartu du.

- Kito, bidalita. Hala ere, motxila astun honekin supermerkatuan sartzea, autobusaren zain dauden hauetako norbaiti eska diezaioket zaintzeko. Baina nori? ez dut inortxo ere ezagutzen. Tira, banoa motxila eta guzti berandutu aurretik. Amari kasu egin izan banio... Esan zidan berak eramango zidala motxila, baina nik nahiago nuen dena lasai antolatu eta nire kaxa ibili.

Izango dugu denbora udara osoan elkarrekin egoteko berriz ere. Ez dakit, bada, ondo egin dudan. Denak interrailen abentura zoragarriak bizitzen eta ni ezagutzen ez dudan jende mordoarekin udalekuan. Auskalo zer jende klase etorriko den aurten! Amak beti esaten du jende berria ezagutzea aukera paregabea dela, oso aberasgarria, asko ikasten dela eta hori guztia. Badakizue, amek esaten dituzten gauza horiek, bizitzaz dena jakingo balute bezala. Ez dira konturatzen guk geure kabuz ikasi nahi dugula zer den bizitza. Eta horren arabera, guk ikasitakoaren arabera, aterako ditugu gure konklusioak, ezta?

Bada hori. Nik nahiago izan dudala Basakabira neuk eraman motxila eta neure lagunekin joan.

Bere pentsamenduetan dagoela, iritsi zaio laguneri mezua.

- Ok!

- Primeran. Orain lasaiago ibiliko naiz beharrezkoa bilatzen, ze konpresak eta tanpoiak ere ahaztu zaizkidala ohartu naiz, eta bidaiarako txutxeak ere hartuko ditut. Perfekto!

Supermerkatuan, jende asko dabil gurdiarekin hara eta hona. Zuri, zuzenean joan beharrean behar dituen produktuak dauden zonara, gailetak eta txokolatea dauden apaletan entretenitu da.>>

IV. IRAKURKETA PROZESUAK

ITEMAREN ERANTZUNAREN MOTA ETA TESTU MOTAK

Irakurketa prozesuak: IZA, L. (2007) lanetik ateratako taula. *Irakurketa plana haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeetan*. Eskolako liburutegiak. Blitz, liburutegiko sagua. Nafarroako Gobernua. Or.17-22.

<https://www.educacion.navarra.es/documents/713364/714655/elplandelecturaeusk.pdf/3e8109e9-b065-4975-98c8-7fc6b7cd92dc>

Irakurketa prozesuak	Definizioa
Informazioa aurkitzea eta eskuratzea (testuko zati jakinei erreparatzea).	Testuan bertan ageriko informazioa lokalizatzea, hitz berak Erabiliz edo sinonimoak erabiliz.
Interpretatzea eta integratzea (Testu barruko erlazioak ulertzea: testua osotara hartuta eta testuko zatien arteko erlazioa kontuan hartuta).	Interpretatzea: testua logikaz ulertzea. Honek informazioa erkatzea eta egiaztatzea, inferentziak egitea edo laguntza probak identifikatzea dakar.
	Integratzea: ulermen orokorra: testutik funtsezkoena ateratzea, testua bere osotasunean hartuta. (Ideien arteko hierarkia ezartzea; ideiarik orokorrena eta gehien gailentzen den ideia aukeratzea).
Hausnartzea (Testuaren kanpo-ezagutza erabiltzea).	Edukiaren gaineko hausnarketa: testuko baieztapenak ebaluatzea eta testuaz kanpotik dakigunarekin egiaztatzea, edukia kritikoki aztertu ahal izateko edo errealitate horren irudikapenaren iritzia izateko.
	Formaren gaineko hausnarketa: arlo morfosintaktikoan, lexiko-semantikoan eta testuzkoan, testuaren ezaugarri linguistikoak ebaluatzea.

Ebaluazio diagnostikoaren esparru teorikoa ere kontsulta daiteke. Bigarren Hezkuntza. Or. **35-39 prozesu bakoitzean lan egiten duten eginkizunen adibideak eskaintzen dira:**

<https://www.educacion.navarra.es/documents/57308/57722/Marcoteorico2.pdf/7e430de5-1b5b-485f-b26d-c7697ac29915>

Idatzizko ekoizpena zuzendu eta ondoren lantzeko, **Idatzizko testuak zuzentzeko orientabideak lana kontsultatzea gomendatzen da. Ebaluazio diagnostikoa. Bigarren Hezkuntza. Hezkuntzako Ikuskapen Koadernoak. Nafarroako Gobernua. 2009.**

<https://www.educacion.navarra.es/documents/713364/714655/competencia.pdf/b34fa63b-0072-42b8-8821-da44faa82021>

❖ **Testuen sailkapena honako kontzeptu hauetan oinarritu da:** (2018ko PISA Irakurketarako Gaitasun Esparruan oinarritua)


- Testu jarraiak edo testu etenak:
 - Jarraia: paragrafoetan antolatutako enuntziatuek osatzen dituztenak dira, puntuazio-arauak betetzen dituzte. Izenburuek eta edukiek, edo letra tamaina nahiz letra tipoaren formatu desberdinak erabiltzeak, testuaren antolaketa ezagutzen laguntzen dute. Testu-lokailuek informazio logiko garrantzitsua ematen dute.
 - Etena: beste modu batez antolatzen dira, beraz, bestelako irakurketa-ikuspegia eta irakurketa ez-linealeko estrategiak behar dituzte. Testua hainbat elementu grafikorekin nahasten dute eta informazioa hainbat modutan aurkezten dute. Testu etenaren adibideak: zerrendak, taulak, grafikoak, diagramak, iragarkiak, infografiak, programazioak, katalogoak, aurkibideak...
- Testu motak: instrukzio, deskripzio, narrazio, azalpen, argudio eta transakzio-testua.
- Testu-generoak.

❖ **Itemen sailkapena, eskatzen duten erantzun motaren arabera:** (Hezkuntza Ebaluaziorako Institutu Nazionalaren ebaluazioaren kontzeptu-esparruan oinarrituta)

- Erantzun itxia: ikasleek eskainitako aukera bat baino gehiago hautatu behar dute, ideiak erlazionatu, baieztapen baten egiazkotasuna edo faltsutasuna ezarri, aukera jakin batzuk ordenatu eta abar.
- Erantzun erdi-eraikia: lauki edo espazio bat edo batzuk hitz edo zifra batekin betetzea eskatzen dute, esaldi bat baino gehiago osatzea edo galderaren bati erantzun labur batekin erantzutea.
- Erantzun irekikoa edo eraikia: ikasleek egitea eskatzen dute.

V. KOADERNOA SOLUZIOEKIN

1. zatia – Entzumena. Goazen: iritsi gara.



1. Nork idatzi du “Iritsi gara” liburua?

- A. Lorea Intxaustik.
- B. Jasone Osorok.
- C. Alaia Argitaletxeak.
- D. Lorea Osorok.

2. Esan honako esaldi hauek EGIA edo GEZURRA diren:

	E	G
A. Istorioaren protagonistak kuleroak motxilan sartu ditu.	X	
B. Istorioaren protagonistak jertsea motxilan sartu du.		X
C. Istorioaren protagonistak kamisetak motxilan sartu ditu.	X	
D. Istorioaren protagonistak soineko marraduna motxilan sartu du.		X

3. Zer bidali die pertsoniak bere lagunei WhatsApez?

- A. Bere uneko kokapena.
- B. Autobus geltokian itxaroteko mezu bat.
- C. Autobus geltokia non dagoen azaltzeko mezu bat.
- D. Supermerkatuan itxaroteko mezu bat.

4. Nola deitzen da istorioaren protagonista?

Zuri

5. Zergatik jartzen du zalantzan protagonistak supermerkatuan motxilarekin sartzea?

- A. Supermerkatuan motxilarekin sartzea debekatua dagoelako.
- B. Motxila oso handia eta astuna delako.
- C. Lapurtuko dioten beldur delako.
- D. Motxila amari utzi behar diolako.

6. Zer esan nahi du "Amari kasu egin izan banio" esaldiak testuaren testuinguruan?

- A. Amari kasu egin ziola.
- B. Amari ez ziola galdetu.
- C. Amari ez ziola kasurik egin.
- D. Ama gogoratu zuela.

7. Zer esan zion amak protagonistari?

- A. Amak motxila arretaz prestatzeko esan zion, ezer ez ahazteko.
- B. Amak motxila txukun prestatzeko esan zion.
- C. Amak esan zion motxila berak eraman ahal ziola.
- D. Amak autobusez joateko esan zion.

8. Nola sentitzen da protagonista udalekurako bidaiaren aurrean?

- A. Pozik.
- B. Zalantzati.
- C. Haserre.
- D. Ilusioz.

9. Zer iritzi du amak jende berria ezagutzeaz?

- A. Arriskutsua dela eta saihestu behar dela.
- B. Aukera oso ona dela.
- C. Aspertzekoa eta garrantzirik gabekoa dela.
- D. Bakarrik ona dela lagunekin joaten bada.

10. Aipatu protagonistak dendan erosiko dituen beste bi gauza.

Konpresak, tanpoiak edo txutxeak

2. zatia – Irakurriaren ulermena

Lehenengo testua. ZIRKUA: KARPA BARRUKO MAGIA


ZIRKUA ZER DA?

Argiak itzali, eta isiltasuna da nagusi instant batez; bat-batean, isiltasuna urratzen dute musikak, argi distiratsuak eta eszenatokiaren erdian agertzen diren pertsonaien ahotsek, eta orduan bai: ikuskizuna hastera doa! Magiaz, liluraz eta jarduera harrigarritz beteriko emanaldia da zirkua. Artista bakoitza txandaka agertzen da eszenatoki borobilaren erdi-erdian, bakoitza bere dohaina erakusteko asmoz. Artistak herriz herri ibiltzen dira, harmailan esertzen den publikoaren aurrean ikuskizuna aurkeztuz. Antzinako Erromako zirkuetan egiten ziren ikuskizunetan du jatorria zirkuak, baina egungo eredu XVIII. mendean hasi zen. Garai hartan, zaldi gainean egindako akrobaziak bihurtu ziren zirkuko ikuskizun nagusi.



ARTISTAK ETA AZPIEGITURA

Askotariko konbinazioak egin daitezkeen arren, zenbait artista zirku gehienetan egon ohi dira: magoa, pailazoak, akrobatak, funanbulistak, malabaristak eta kontortsionistak dira, besteak beste, zirku orotan aurki daitezkeen artistak. Kable baten gainean orekan ibiltzen dira funanbulistak, eta kontortsionistek gorputza tolestu eta kiribilduz osatzen dute erakustaldia, esaterako. Erakustaldien artean, aurkezle batek hurrengo emanaldiaren sarrera egin ohi du.



Herriz herri muntatzen eta desmuntatzen den karpa ibiltari baten barruan gertatzen da dena. Ondorioz, zirkuko artistak nomadak izan ohi dira, eta karabanetan bizi dira

ANIMALIAK ZIRKUETAN

Zalaparta eta eztabaida handia piztu du tradizionalki zirkuko ikuskizunetan animaliak erabili izanak, eta, gaur-gaurkoz, askok animaliarik gabeko zirkuak eskatzen dituzte, animalien eskubideen izenean.

Animalien askatasunaren aldeko zenbait elkartek mobilizazioak egin izan dituzte, eta gero eta gehiago dira animaliak erabiltzen dituzten zirkuak debekatu dituzten hiriak eta erkidegoak. Gasteiz izan zen aitzindaria, eta Nafarroako, Gipuzkoako eta Bizkaiko hogeit hamar herrik behintzat debekatu dituzte mota honetako zirkuak; besteak beste, Iruñeak, Donostiak eta Bilbok. Beste hainbat tokitan, oraindik ere baimenduta daude zirku animaliekin; adibidez, Baionan.



GURE ZIRKUA



Gure inguruan ere badira zenbait zirku konpainia. Horietako bat "Gure Zirkua" da. Iker Galartza "Gure Zirkuko" kide eta sortzaileak azaldu du zer topa daitekeen zirkuan: «Guztira, hamabi artista daude, eta, animaliak izan ezik, beste edozein zirkutan ikus daitekeen guztia dago: malabaristak, orekariak, pailazoak, magoa, trapezistak...». Artista guztien erakustaldiak «lotzen» saiatzen direla adierazi du

Galartzak, ikuskizunari «zentsua» emateko. Horrela, harmailetako ikusleak gozaraztea dute helburu: «Gure Zirkua laguntasunetik abiatutako proiektua da; gure pasioa azaleratu, eta publikoari transmititzen saiatzen gara».

ZIRKU ESKOLAK

Zirkuan artista profesional gisa jardun ahal izateko, zirku eskolak daude zenbait herri eta hiritan: "Oreka", Baionako zirku eskola; "Zirkozaurre", Bilboko zirku formakuntza eskola; Iruñeko Txantrea auzoan dagoen "Zirika Zirkus", eta Getxoko (Bizkaia) "Zirkun Zirkua", eskola, besteak beste. Eskola horietan, material eta gune ezberdinak baliatuta, apurka zirkuaren munduan murgildu eta lehen pausoak emateko oinarriak finkatzen ahalegintzen dira zirkuan adituak eta arituak diren irakasleak.

Iturria: "Zirkua" artikulutik ateratako informazioa. Berria egunkaria , 903. zenbakia, (2020ko uztailaren 18a). (Moldatuta)

11. Zein da testuaren helburua?

- A. "Gure Zirkuaren" inguruan informazioa ematea.
- B. Zirkuaren munduaren inguruko informazioa ematea.
- C. Zirkuaren inguruko iragarki bat.
- D. Zirku eskolen informazioa ematea.

12. Testuak zirkua "magiaz, liluraz eta jarduera harrigarritz beteriko emanaldia" dela deskribatzen du. Zer uste duzu esan nahi dutela hitz hauek?

- A. Truku magiko landuei egiten diete erreferentzia.
- B. Artistek beren abileziekin sortu nahi duten harridura eta sorpresa sentsazioa deskribatzen dute.
- C. Zirku-ikuskizunak errealitatez kanpokoak eta fantastikoak direla adierazten dute.
- D. Ikuskizunean parte hartzen duten animalia exotiko kopuru handiari egiten diote erreferentzia.

13. Zein forma du zirkuaren eszenatokiak?

Borobila

14. Zer esan nahi du zirkuko artistak nomadak direla?

- A. Zirkuko artistak leku berean bizi eta lan egiten dutela.
- B. Zirkuko artistak sarritan bidaiatzen dutela, hiri batetik bestera ikuskizunak emateko.
- C. Zirkuko artistak muntatzen eta desmuntatzen den karpa batean bizi direla.
- D. Zirkuko artistak soilik udan lan egiten dutela, eguraldi ona dagoenean.

15. Esan honako enuntziatu hauek EGIA edo GEZURRA diren:

	E	G
A. Gasteizen, animaliak zirkuetan ager daitezke.		X
B. Nafarroa osoan animaliak zirkuetan debekatuta daude.		X
C. Donostian eta Bilbon animaliak zirkuetan debekatuta daude.	X	
D. Baionan, animaliak zirkuetan ager daitezke.	X	

16. Zer esan nahi du "animaliak izan ezik, beste edozein zirkutan ikus daitekeen guztia dago" esaldiak?

- A. Gure Zirkuan beste edozein zirkutan ikus daitekeen guztia dagoela.
- B. Gure Zirkuan ez dela animaliarik agertzen.
- C. Gure Zirkuan bakarrik animaliak agertzen direla.
- D. Gure Zirkuan animaliak artistekin batera ikusi daitezkeela.

17. Zenbat artista inguru aritzen dira "Gure Zirkua"-n, testuaren arabera?

- A. Bost artista.
- B. Hamabi artista.
- C. Hogei artista baino gehiago.
- D. Ez da zehazten.

18. Testuak hainbat zirku eskola aipatzen ditu. Zergatik uste duzu garrantzitsua dela horrelako eskolak egotea zirkuaren etorkizunerako?

- A. Zirkuek beti artista gazte eta merkeak izan ditzaten.
- B. Zirkuaren tradizioak osorik mantentzea ziurtatzeko.
- C. Artista profesional berriak prestatzeko eta zirkuko berrikuntza sustatzeko.
- D. Hurrek pailazo izaten ikasteko leku bat izan dezaten.

19. Zein egunetan eta non argitaratu zen testu hau?

Berria egunkarian / Berria. 2020ko uztailaren 18an. / 20-10-18/... edo antzeko erantzunak

Bigarren testua

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

ANE eta OHE HEGALARIA

Antzerki
musikala

Sarrera doan aretoa bete arte



TUTERA:

Fernando Remacha
Kontserbatorioa - 18:30
Abenduak 1 (ostirala)

IRUÑA:

Zentral - 12:00
Abenduak 3 (igandea)

LESAKA:

Harriondoa Kultur Etxea - 18:30
Abenduak 5 (asteartea)

ALSASUA:

Iortia Kultur Gunea - 17:30
Abenduak 6 (asteazkena)

TAFALLA:

Kulturgunea - 18:00
Abenduak 7 (osteguna)

ZANGOZA:

El Carmen Auditorioa - 18:00
Abenduak 8 (ostirala)

Ohe hegalariai toki askotara eramanez du Ane eta bere gelara itzuli ahal izateko erronkak gainditu beharko ditu: gezurrak kontatzeko kantua asmatu, itzalekin ipuina kontatu, publikoaren laguntzaz igarkizun bat asmatu...

**GURE HERRIETAKO HAUR KANTUAK ETA KONTUAK
FAMILIAN GOZATZEKO**

gurea, denona

euskara

de todos y todas

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra



20. Bete ezazu hurrengo esaldia beheko aukeren artean egokia aukeratuz.

Testu hau _____ da.

- A. Antzerki musikal bat.
- B. Euskararen Nazioarteko eguna ospatzeko ekitaldi baten iragarkia.
- C. Marrazki bizidunetako pelikula baten iragarkia.
- D. Euskararen Nazioarteko eguna ospatzeko pelikula bat.

21. Zein da testuaren helburua?

- A. Euskararen Nazioarteko eguna ospatzeko ekimen baten berri ematea.
- B. Telebista programa baten inguruko informazioa ematea.
- C. Nafarroako Gobernuak kanpaldi baten inguruko informazioa ematea.
- D. Irakasleentzako antzerki musikal baten inguruko informazioa ematea.

22. Zein da antzezlanaren izena?

Ane eta ohe hegalaria

23. Zer adierazten du "Sarrera doan aretoa bete arte" esaldiak?

- A. Sarrera ordaindu egin behar dela.
- B. Jende asko espero dela.
- C. Antzezlanak ez duela arrakastarik izango.
- D. Sarrera kosturik gabekoa dela eserleku guztiak okupatu arte.

24. Zerk lagunduko dio Aneri toki askotara joaten?

Ohe hegalaria

25. Zer egin beharko du Anek bere gelara itzultzeko?

- A. Ohean lo egin.
- B. Kantatu eta dantza egin.
- C. Erronkak gainditu.
- D. Ipuinak irakurri.

26. Zein hiritan izango da antzezlanaren emanaldia eguerdian?

- A. Tuteran.
- B. Lesakan.
- C. Tafallan.
- D. Iruñean.

27. Nori zuzenduta dago antzezlana?

- A. Helduei bakarrik.
- B. Haurrei eta familiei.
- C. Ikasleei bakarrik.
- D. Irakasleei bakarrik.

28. Zer ospatzen da kartelaren arabera?

- A. Haurraren Eguna.
- B. Antzerkiaren Eguna.
- C. Euskararen Eguna.
- D. Familiaren Eguna.

3. zatia – Idazmena

29. Ikasturte bukaerako txangoa antolatzea tokatu zaizu. Txangoa egun batekoa izango da.

Azaldu nora joan nahi duzun eta zer egingo duzuen.

Testuan ideia hauek erabil ditzakezu:

- Nora joango zarete?
- Nola joango zarete?
- Zein irakaslerekin joango zarete?
- Zer dago leku horretan?
- Zer egingo duzue han?

HASI IDEIAK ANTOLATZEN (zirriborroa egitea derrigorrezkoa da).

1. paragrafoa	
2. paragrafoa	
3. paragrafoa	

ATALAK		PUNTUAZIOA 0 / 0,25 / 0,5 / 1
	Plangintza	
	Txukuntasuna	
	Ortografia	
	Gramatika-zuzentasuna	
	Hiztegi-aberastasuna	
	Egokitzapena	
	Koherentzia	
Kohesioa	Lokailuak	
	Kohesioa mekanismoak	
	Puntuazioa eta paragrafoak	
<u>29. itema – Osotara:</u>		/10